AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

979

110/2013 EBAZPENA, otsailaren 5ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Santiago Rabanal Retolaza jauna Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentearen postutik kentzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren irailaren 19ko 1302/2005 Ebazpenaren bidez, Santiago Rabanal Retolaza jauna Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerente izendatua izan zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Santiago Rabanal Retolaza jauna Galdakao-Usansolo Ospitaleko zuzendari gerentearen kargutik kentzea eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2013ko otsailaren 6tik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Galdakao-Usansolo Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 5a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.